

ERABAKIA, 2024ko MAIATZAREN 20koa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA 2023ko UZTAILAREN 28ko ERABAKIA, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUko IRAKASLE-IKERTZAILEEK ETA TEKNIKARIAK ETA KUDEAKETAKO ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEK 2023/2024 IKASTURTEAN ERASMUS+ PROGRAMAN FORMAKUNTZA EGONALDIAK EGITEKO OINARRIAK ONARTZEKO DENA

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearen deialdi honek ezartzen ditu Erasmus+ programan dirulaguntzak banatzeko modua eta formakuntza helburuak dituzten egonaldiak egiteko baldintzak, aintzat harturik Europako Batzordeak Hezkuntza Nazioartekotzeko Zerbitzu Espainiarraren bidez (SEPIE) emandako jarraibideak.

Langileen prestakuntzaren helburu zabala betetze aldera, deialdi hori ireki da bi mugikortasun motatan parte hartzeko eskatzeko: goi mailako hezkuntzako erakunde batera edo enpresa batera

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluari jarraituz, administrazio publikoek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Aurrekoarekin bat etorritik, aldatu egiten da 2023ko uztailaren 28koa ebazpena, eta honela geratzen da idatzita:

Lehenengoa: Ebazpenaren 2. paragrafoa aldatzen da, ebazpen horretan jasotako mugikortasunak finantzatzeko Europako funtsen jatorrizko dirulaguntza-kontratuari lotutako proiektuari buruzkoa, eta Erasmus+ KA 131 2023 proiektua sartzen da finantzaketa-iturri gisa. Honela idatzita geratuko da:

- *“Kontuan hartuta badagoela kreditua, Erasmus+ KA131 2022 eta Erasmus+ KA131 2023 proiektuei lotutako dirulaguntza kontratuetan adierazitako Europako funtsetatik datorrena, eta nire eskumenak baliatuz.”*

Azaldutakoaren harira, nire eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehena: Onartzea eta argitaratzea Euskara, Kultura eta Nazioartekotzeko errektoreordearen 2023ko uztailaren 28ko ebazpenaren 2. paragrafoaren aldaketa. Ebazpen horren bidez, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileek (IRI) eta teknikari, kudeatzaile eta administrazioko eta zerbitzuetadko langileek Erasmus+ esparruan prestakuntza jasotzeko parte hartzeko oinarriak onartzen dira. Hona hemen aldaketa:

- *“Kontuan hartuta badagoela kreditua, Erasmus+ KA131 2022 eta Erasmus+ KA131 2023 proiektuei lotutako dirulaguntza kontratuetan adierazitako Europako funtsetatik datorrena, eta nire eskumenak baliatuz.”*

Bigarrena: Erabaki honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari, eta beraren kontra gorako errekurtsua aurkez dakioke Euskal Herriko Unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboari (EISBA) hilabeteko epean, berau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, horrek ezertan eragotzi gabe beste edozein errekurtsu jartzea.

Gorako errekurtsua jarri denetik hiru hilabete igaro badira erabakirik jakinarazi gabe, administrazioaren isiltasunez ezetsi dela ulertu beharko da, eta orduan administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan

Leioa, 2024ko maiatzaren 20a

M. Juncal Gutierrez Mangado

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea
